Gazteen Euskal Behatokia

# Elkarrizketa Janire Gazopo nerabeen eta drogen arloko hezitzaile espezializatuari

**Drogak kontsumitzen dituzten nerabe eta gazteengan** esku hartzeari buruzko ikastaroa eman du maiatzean Janire Gazopo Beaskoetxeak, Gazteen Euskal Behatokiak antolatuta.
Etorkintza fundazioko gizarte-hezitzailea da Janire, eta ibilbide luzea du kale-heziketan, drogak kontsumitzen dituzten gazteekin. Gainera, gazteen taldeekin egin du lan hezkuntzaren eta laneratzearen arloetan.

**1. Zuretzat, zein da hezitzaile-lanaren alderdirik pozgarriena?**

Nire lanetik gehien gustatzen zaidana gizarte-lanaren lan-eremua da, hau da, pertsonekin esku-hartze zuzena izatea. Nire kasuan, nerabeekin eta gazteekin lan egitea zoragarria eta oso pozgarria da, baina baita konplikatua ere. Beti izan dut gustuko gaztetxoekin lan egitea, haiei laguntzea, haien ondoan egotea, bizitza-kalitatea hobe dezaten eta ongizatean bizi daitezen.

Lan egin izan dudan gazteen taldeetan, gehienek substantziak kontsumitu dituzte. Nire ustez, droga-mendetasuna gure lan-arloetako bat da. Esparru horretan, gizarte-hezitzailearen lana funtsezkoa da, bai prebentzio selektiboan (dagoeneko pertsonak drogen kontsumoarekin harremana duenean edo izan duenean), bai kontsumotik eratorritako ondorio negatiboak dituztenentzako prebentzioan (kalteen murrizketa). Izan ere, pertsona horiei esku-hartze prozesu osoan lagun egitea da gure ardura.

**2. Zure ustez, zeintzuk dira kontuan hartu behar diren edo garrantzizkoak diren alderdiak, drogak kontsumitzen dituen gazte batekin lan egiteko garaian?**

Drogen kontsumo guztiek ez dute arrisku bera. Kontsumo-egoera behar bezala landu ahal izateko, alderdi batzuk hartu behar dira kontuan: substantzia-mota, kontsumo-motak (erabilera, gehiegizko erabilera eta dependentzia), substantzia bakarra ala bat baino gehiago, kontsumoaldia, maiztasuna, kantitatea, kontsumo-bideak... Gehienetan, gazte gehienen kasuan, behin kontsumitzen hasita, ez dira dependentziara helduko. Hala ere, garrantzitsua da seinale batzuen aurrean zuhur egotea: zenbat eta lehenago esku hartu, orduan eta hobeak izango dira emaitzak.

Gazte bati ulertzeko, zertaz hitz egiten duen jakin behar dugu, edo, gutxienez, zantzu batzuk izan. **Ezin dugu larritu,** edo ekin, gazteak gugandik nahi duena pentsatu gabe.

**3. Zure ustez, gazteekin lan egiten duten pertsonek nahikoa ezagutzen dituzte gazteek drogak kontsumitzeko dituzten arrazoiak?**

Ezetz uste dut, esatea kostatzen bazait ere. Arestian esan bezala, gizarte-hezitzaileak pertsonekin eta pertsonentzat egiten du lan. Beraz, profesionalaren ezaugarri pertsonalak funtsezkoak dira prozesuan. **Hezitzailea jaio eta hezi egiten da.** Oso adimen irekia eta ernea izan behar du. Lan-ibilbide osoan ezinbestekoa da ikastea eta etengabe gaurkotzea.

Etengabeko prestakuntza izan behar dugu, eta geure ardura da hori, geu gara profesionalak, egunez egun hausnartu eta gehien kezkatzen gaituzten gauzak konpondu behar ditugunak, ezinegona sentiarazten digutenak... Dilemei eta erronkei izena jarri behar diegu: ongi egiten ez dakigunari edo, zertarako egiten ditugun jakin ez arren, egin egiten dugun horri.

**4. Zergatik iruditzen zaizu prestakuntza garrantzitsua, zure lanean?**

Nire ustez, oso garrantzitsua da, heziketa-harremanean, hezitzaileok jokoan jartzen dugulako geure burua pertsona gisa. Nire lanean ikusten ditudan premien arabera hezten dut neure burua. Pertsonen arteko harremana eta inplikazio emozionala dira lanbide honen oinarriak. Hori dela-eta, beharrezkoak dira parekoen artean kezkak eta premiak mahairatzeko guneak. Ekintza-hausnarketa-ekintza prozesutik ikasitako guztiak balio handiko aldaketa dakar gure jarreran.

**5. Zein izan beharko litzateke drogak kontsumitzen dituen nerabe edo gazte batekin lan egiten duen profesionalaren jarrera nagusia?**

Kontsumoaren arrazoirik garrantzitsuenak gazteek kontsumoarekin lotzen dituzten ondorio positiboak dira: ondo pasatzea eta euren nortasuna berrestea eta adieraztea. Hori kontuan hartuta, informazioa prebentziorako funtsezko tresna da, bai gazteentzat, bai guretzat.

Jarrerari dagokionez, laguntzeko prestutasuna adierazi behar dugu, ulertzen ahalegindu behar dugu, gazteen iritziak eta esperientziak aintzat hartu. Gure jarrera epaitzearena edo jokaera jakin batzuk ezartzearena bada, gure lana oztopatzen ibiliko gara. Funtsezkoa da gaztearen aintzatespena, jakinda litekeena dela hasieran hori ukatzea edo ez onartzea.

**Jarrai gaitzazue gizarte- sareetan!**

**Entrevista a Janire Gazopo, educadora especializada en adolescentes y drogas**

Janire Gazopo Beaskoetxea, ha impartido durante el mes de mayo un curso de formación organizado por el Observatorio Vasco de la Juventud sobre **intervención con adolescentes y jóvenes consumidores de drogas**.
Janire es educadora social en la Fundación Etorkintza y cuenta con una amplia trayectoria en el trabajo de calle con jóvenes que consumen drogas. Durante los últimos seis años, además, se ha dedicado a trabajar con grupos de jóvenes en el ámbito educativo y en el de la inserción laboral.

**2. ¿Qué es para ti lo más gratificante del trabajo como educadora?**

Lo que más me gusta de mi trabajo, es el campo de actuación del trabajo social: la intervención directa con las personas y en mi caso, trabajar con adolescentes y jóvenes es muy apasionante y gratificante aunque también complicado. Siempre me ha gustado trabajar con chavales y chavalas, ayudarles, acompañarles, estar a su lado…para intentar alcanzar una mejora en su calidad de vida y lograr su bienestar.

Yo siempre he trabajado con población joven donde la mayoría presentaba consumo de sustancias. Entiendo que la drogodependencia es una de nuestras áreas de abordaje. El trabajo de la educadora social en este ámbito es fundamental tanto en la prevención selectiva, cuando la persona ya ha tenido o tiene contacto con el consumo de drogas como en la prevención indicada para quienes ya presentan consecuencias negativas derivadas del consumo (reducción de daños), ya que somos las personas encargadas de acompañarles durante el proceso de intervención.

**2. ¿Qué aspectos hay que tener en cuenta o te parecen importantes conocer para trabajar con un o una joven que consume drogas?**

No todo consumo de drogas implica el mismo grado de riesgo. Para poder abordar bien una situación de consumo hay que tener en cuenta varios aspectos como son: tipo de sustancia/s; formas de consumo: uso, abuso y dependencia; uso de una o varias sustancias, el tiempo de consumo, la frecuencia, la cantidad, las vías de consumo… La mayoría de las veces, y en la mayor parte de los y las jóvenes, el inicio del consumo no conduce a la dependencia. Sin embargo, es importante, estar atentos ante determinadas señales, porque cuanto antes se intervenga mejores resultados se obtendrán.

Tenemos que saber, o como mínimo conocer, de qué nos habla un joven para poder entenderle y **no alarmarnos** o actuar sin pensar en lo que el o la joven quiere que hagamos por ellos.

**3. ¿Crees que las personas que trabajan con jóvenes conocen suficientemente qué y porqué consumen las personas jóvenes?**

Creo que no, aunque me cueste decirlo. Como he dicho antes la educadora social trabaja por y para las personas, por lo que las características personales del o la profesionalal juegan un papel muy importante en el proceso. **Una educadora nace y se hace**, tiene que tener una mente muy abierta y despierta. El aprendizaje, la actualización de los cambios es imprescindible a lo largo de toda la carrera profesional.

Tenemos que tener formación continua y es nuestra responsabilidad, somos nosotras y nosotros los profesionales, quienes a través de la reflexión de nuestro día a día, tenemos que resolver aquellas cosas que nos preocupan, que nos generan malestar, poner nombre a los dilemas y retos, a aquello que no sabemos hacer bien o hacemos sin saber para qué.

**4. ¿Por qué consideras importante la formación para tu trabajo?**

Para mí es muy importante, teniendo en cuenta que en la relación educativa, somos nosotras, las educadoras, las que nos ponemos en juego como personas. Yo me formo en función de las necesidades que voy detectando en mi trabajo. La relación interpersonal y la implicación emocional son los pilares de esta profesión, de ahí la necesidad de buscar espacios donde compartir las preocupaciones y necesidades entre iguales. Todo aquello que aprendemos a través de la acción- reflexión-acción, genera un valioso cambio en nuestra actitud.

**5. ¿Cuál sería la actitud fundamental de un profesional con una persona adolescente o joven que presentara un consumo de drogas?**

Si tenemos en cuenta que algunas de las causas más importantes de consumo son las consecuencias positivas que los y las jóvenes asocian al consumo y a la forma de divertirse y que utilizan el consumo como medio de afirmar y expresar su identidad, la información es una herramienta fundamental en la prevención, para ellos y para nosotros.
Respecto a la actitud, debemos mostrar apoyo, intentar comprenderles, tener en cuenta sus opiniones y experiencias. Si adoptamos una actitud con la que pretendemos juzgarles o imponer determinados comportamientos, se estará obstaculizando nuestro trabajo. Es fundamental conseguir el reconocimiento por parte del o la joven, sabiendo que al principio es posible que lo niegue o no lo reconozca.